

## **GIPUZKOAKO ALDUNDIA LANEAN ARI DA HERRI-AKUSAZIOA EZABATZEKO, ARALARKO PISTA ERAIKITZEAGATIK EGINDAKO USTEZKO DELITU EKOLOGIKOARI LOTUTAKO EGINBIDE JUDIZIALETAN.**

Eguzki Talde ekologista eta antinuklearra eta Landarlan **ingurumen elkarte**a, Aralarko gizarte-interesen ordezkari gisa, **herri-akusazioa** bilakatu dira, epaitegietan Arantxa Ariztimuño eta **Felix Asensio**-ren aurka aurrera jarraitzen duten aurre-eginbide judizialetan. Bi politiko inputatu hauek PNV-PSE Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Ingurune Naturaleko Zuzendari Nagusia eta Ingurumeneko Zuzendari Nagusi ohia dira hurrenez hurren. Ingurumenaren eta natur eremu babestuen zaintza egin behar zutenak izanik, interes orokorra bermatu beharko lukete, baina ez omen da horrela izan eta lurralde-antolaketaren aurkako ustezko delitu batengatik inputatuak daude, Enirio-Aralarko barruti babestuan 4 km pasako pista bat baimendu eta sustatzeagatik.

Baina Gipuzkoako Aldundiak balizko okerra onartu ordez, nahiago izan du berean tematu eta talde hauek natura defendatzeko eta ingurumen-justizia eskatzeko dituzten eskubideak oztopatzen eta eragozten saiatu. Eta adituei hoberik bururatu ez zaienez, epaitegian uko eginarazteko 20.000 euroko fidantza bat jartzeko eskatu zuten eta, dudak uxatzeko **fidantza jarri arte guri parte hartzen ez uzteko eskatu epaileari**. Epaile instruktoreak astakeriatzat hartu eta balizko gastuei aurre egiteko moduko 4.000 €-ko fidantza ezarri zigun. Baina kopuru honi aurre egiteko gai izango ote ginen kezkaekin eta, dirudienez, Foru Aldundiak defentsa gastu altuak dituenek, hain gutxiarekin ez konformatzeko erantzun dio epaileari eta fidantza 10.000 €-ra igotzeko behintzat, ea honela gizarte-akusazioa uxatzea lortzen duten.

Foru gobernu honek berak gardentasuna, gizarte-partehartzea eta lankidetzat publiko-pribatua bezalako ideiekin etengabeko zalaparta itzela sortzen digu bitartean. Baina hau bezalako salaketek argitzen dituzte Aldundiaren benetako asmoak, haien bozka-mintegiarri lotutako presio-taldeentzat lan egitea bere helburua izanik, haien erabakietan klientelismoa hutsa erabiltzea, nahiz eta horretarako naturaren kontserbaziorako legedia alboratu beharrean gertatu.

Eta Aldundiak Aralarren sortu duen gatazka honetan, ezin ba falta korura igoko diren talde laguntzaileak: ENBA, EHNE-Gipuzkoa, GEBE edo Baskegur bezalako erakunde pribatuak (iturri publikoetatik elikatzen diren arren) eta Abaltzisketako Udala bezalako publikoren bat ere bai, gustukoak ez dituzten legeei intsumisoak direla aldarrikatuz eta, egun ia ezerezean eta etorkizun gutxiago duen landa-eredu nostalgiko baten irudia saldu nahian kaleratu direnak. Lehen sektoreko talde tradizionalista hauei ametitu nahi ez dutena berriro ere gogoratu arazi beharko zaie: Enirio-Aralar herri-mendi bat dela, babestua gainera, eta bertan ez dagoela nolana jarduterik eta indarrean dagoen ingurumen arautegiak interes publikoa babesten duela eta edozein interes pribatuaren aurretik dagoela.

**Donostian, 2018ko otsailaren 21ean.**

